

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 2145

*AGINDUA, 2024ko apirilaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita, 2024. urterako, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitze edo ekipatzeko laguntzetarako, de minimis araubidean.*

Gizarte Zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeak 3. artikuluan ezartzen duenez, gizarte-zerbitzuen sistema botere publikoen ardura da, eta, beraz, botere publikoek sustatu beharko dituzte zerbitzu horiek bultzatzeko baliabideak (giza baliabideak, finantzarioak eta teknikoak). Halaber, artikulua horren arabera, gizarte-zerbitzuak emateko, botere publikoek kontuan hartu behar dute ekimen pribatua, ekimen publikoari laguntzeko. Horregatik, botere publikoei dagokie irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea gizarte-zerbitzuen arloan. Legeak adierazten duenez, gizarte-zerbitzuek, lehentasunez, prebenituko dituzte bazterkeria sortzen duten edo bizi-modu autonomoaren garapena mugatzen duten kausak.

Agindu hori betez, Sasoikako Lanaren Arretarako I. Plan Integrala (2004-2007) onartu zen, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila buru zuen Sasoikako Lanaren Erakunde Arteko Mahaiak onetsia, eta plan hori egikartzeko esparru juridiko egokia egin zen, zeinak zehazten baitzuten landa-udalerrietan garatu beharreko ekintzak, bizi-kalitatea hobetzeko zerbitzuekin lotuta. Garrantzi berezia eman zitzaion aldi baterako biztanleria honen bizi-kalitatea –Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoiko zerbitzuak ematen dituzte– eta udalerrietako biztanleriak duen bizi-kalitatea berdintzeko beharrari, bai eta landa-eremuaren birgaitze sozial eta ekonomikoa lortzeari ere, eta, zehazki, bizi-kalitatea hobetzeari.

Planaren helburuak, besteak beste, hauek ziren: jarduerak hastea sasoikako langileen ostatu-sarea handitu eta hobetzeko eta lan- eta ostatu-baldintza duinak bermatzeko, sasoikako langileak gurean dauden artean errazago integra daitezen, eta laguntzak eta dirulaguntzak emateko aukera ezartzea sasoikako langileentzako ostatuak sortzeko arloan.

Testuinguru horretan argitaratu zen 62/2007 Dekretua, apirilaren 17koa, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko lana egiten dutenentzako ostatuak diruz laguntzen dituenena. Dekretu horrek arautzen du EAEko nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatuak eraiki, egokitu edo hobetzeko dirulaguntzen programa, ostatu-baldintza duinak lortzeko, sasoikako langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden artean errazago integra daitezen.

I. plan horren ostean, honako hauek etorri ziren: Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Integrala, 2008-2012 aldirako, 2007ko abenduaren 19an onetsia, eta 2013-2016 aldirako III. Plana, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila buru zuen Erakunde Arteko Mahaiak 2013ko apirilaren 17an prestatu eta onetsia.

III. Planaren indarraldia bukatuta eta gauzatutako ekintzei buruzko ebaluazioa eginda, Plan horretan jasotako ekintza askori jarraipena emateko, egiteko geratu ziren ekintza batzuei ekiteko eta ekimen berriak sartzeko beharrezana ikusi zen.

Testuinguru horretan, Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2020) onetsi zen 2017ko uztailaren 10ean. Horren helburu nagusia da modu koherente eta koordinatuan planifikatzea sasoikako lanaren inguruan sortu diren beharrezko erantzuteko ekintzak; adibidez: erabilitako higiezinak eskatzen diren gutxieneko betekizunak betetzea, eta plaza-kopuru nahikoa izatea bizigarritasun- eta duintasun-baldintza egokiek.

Horrez gain, IV. Planean planteatu zen nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean sasoiko zerbitzuak ematen dituzten langileentzako ostatuertarako laguntza-deialdiarekin jarraitzeko beharra, eskaintako ostatuaren bizigarritasun-baldintzak hobetzeko; era horretan, erraztu egingo da EAEko higiezinak eta ekipamenduen erregistroan inskribatzea, eta eskumena duen agintaritzak kontrolatu ahal izango ditu.

Halaber, 2022-2024 aldirako EAEko Sasoikako Lanaren Arreta Integralerako V. Planak, 2022ko otsailaren 3an onartutakoak, egokitzen jotzen du ostatuertarako laguntza-lerroari eustea.

I. planetik gaur egungora arte, jasota dago Eusko Jaurlaritzak bermatu egin behar dituela Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten sasoikako langileen bizi- eta ostatu-baldintzak. Horrez gain, beste behar hauek ere mantentzen dira: jarduerak egiten jarraitzea sasoikako langileen ostatu-sarea –ostatu kolektibo publiko eta pribatuak– handitu eta hobetzeko, eta lan- eta ostatu-baldintza duinak bermatzeko, sasoikako langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden artean errazago integratu daitezkeen. Horretarako, beharrezkoa da ostatu horiei laguntzak ematen jarraitzea.

Horrela, bada, agindu honen xedea da 2024. urterako laguntzen deialdia egitea, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortu, egokitu edo ekipatzeko. Laguntza-programa hori 2024., 2025. eta 2026. urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatuko da, zeina Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez onartu baitzen –horren bitartez onartu zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa–.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako *de minimis* araubidea aplikatu beharko zaie laguntza hauei. Era berean, agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak xedapen hauetan ezarritakoaren mende daude: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa; eta bi arau hauetan bildutako oinarritzko erregulazioa: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azken horren erregelamendua onartzen duena.

Bestalde, aurtengo ekitaldiko laguntza-deialdia egitea ahalbidetzen dute 1/2011 Legegintzako Dekretuak (maiatzaren 24koa, zeinaren bitartez, batetik, onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, eta, bestetik, arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoek aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena) eta 21/2023 Legeak (abenduaren 22koa, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorrak).

Horregatik guztiatik, eta kontuan hartuta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2024. urterako, nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak, *de minimis* araubideari atxikita. Agindu honen I. eranskinean jasota daude oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 23a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## I. ERANSKINA

## 1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzen deialdia egitea 2024. urterako.

2.– Laguntza hauek «de minimis laguntzak» dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

## 2. oinarria.– Onuradunak.

1.– Hauek izan daitezke agindu honetan arautzen diren laguntzen onuradunak:

A) Pertsona fisiko edo juridikoak, horien forma juridikoa edozein dela ere –publikoak edo pribatuak–. Pertsona fisiko edo juridiko pribatuen kasuan, betiere nekazaritza-ustiategi baten titularrak edo titularkideak badira.

B) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteak eta ondasun-erki-degoak, baldin eta nekazaritza-ustiategi baten titularrak edo titularkideak badira. Bertan parte hartzen duten pertsona guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiak bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak.

Elkarteen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dena den, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak nahikoa botere izango baitu, onuradun gisa, elkarteari dagozkion egitekoak betetzeko, eta kide bat izendatu beharko dute funtsen hartzaile izateko, zeinak banatuko baitizkie funtsok elkarteko gainerako kideei. Elkartea ezingo da desegin harik eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 32.m) artikuluari dagokionez.

2.– Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira eskabidea egiteko unean Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko betekizunak eta honako betekizun orokor hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere, zeina egiaztatuko baita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren arabera (Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, onuradunen aldetik berariazko baimenik behar izan gabe; berariaz horren aurka agertzen direnean salbu, kasu horretan egiaztatu egin beharko baitute datu hori. Bestalde, dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, pertsona edo erakunde eskatzailearen edo onuradunaren erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da.

b) Eskatzaileek jakinarazi behar dute diruz laguntzen den gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio

publiko edo ente publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez. Hala bada, laguntza ematen duen erakundearen identitatea eta laguntzaren zenbatekoa jakinarazi beharko dira.

Era berean, jakinarazpen horrekin batera berariazko adierazpen bat aurkeztu beharko da uneko ekitaldiaren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan jasotako gainerako *de minimis* laguntzei dagokienez.

c) Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egotea eta dagokion Erregistroan inskribatuta egotea.

d) Nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen edo bestelakoen elkarte edo erakundeen kasuan, emakumeen presentzia gutxienez orekatua izatea zuzendaritza-organoetan.

3.– Honako hauek ezin izango dira onuradun izan:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan debekutzat jotako egoeraren batean daudenak, edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.

b) Krisialdian dauden enpresak, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

c) Berreskuratze-agindu baten mende daudenak, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko delata eta ezin dela barne-merkatuarekin bateratu.

4.– Onuradunak enpresa ez deslokalizatzeko konpromisoa adierazi beharko du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira honako helburu hauek dituzten proiektu edo jarduerak: sasoikako langileentzako ostatu-sarea handitu eta hobetzea, eta ostatu-baldintza duinak bermatzea, sasoikako langileak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden artean errazago integra daitezen. Horrek barnean har dezake ostatuak eraikitzea edo, hala badagokio, eskuratzea, eta horiek gaitzea, eraberritzea, handitzea, egokitzea, hobetzea eta ekipatzea, erregistratutako ostatua izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko.

2.– Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren mende egongo dira diruz lagundu daitezkeen kostuak, bai eta abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren mende ere.

Diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartuko dira kontzeptu hauei dagozkien inbertsioak edo gastuak:

a) Sasoikako langileentzako ostatu izateko higiezinak eraiki edo, hala badagokio, eskuratzea. Azken kasu horretan, higiezinak ezin dira egon inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoan sasoikako langileak hartzeko higiezinaren eta ekipamenduen erregistroan, ezta laguntza-eskabidea aurkeztu aurreko bost urtetan inskribatuta egon ere.

b) Ondasun higiezinak birgaitzea, eraberritzea edo egokitzea sasoikako langileentzako ostatu gisa erabiltzeko, eta ondasun higiezinak birgaitzea, eraberritzea edo egokitzea, baldin eta dagoneko sasoikako langileei ostatu emateko badira eta dagokien erregistroan inskribatuta badaude.

c) Arkitekturako, ingeniartzako edo beste adar tekniko bateko profesionalen zerbitzu-sarien gastuak, aurreko paragrafoan adierazitako inbertsio edo gastuekin lotutakoak, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuaren % 10eraino.

d) Altzariak eta ekipamendua.

3.– Inolaz ere ez dira diruz laguntzeko moduko gastuak izango inbertsioak edo kapital-gastuak, ezta jarduerari lotutako beste zerga edo tributu batzuk ere, aurreko apartatuan aipatutako BEZ berreskurazina izan ezik.

4.– Gastu diruz lagungarriari dagokienez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundutako gastuaren zenbatekoa 40.000 euro edo handiagoa bada obretan, edo 15.000 euro edo handiagoa gainerakoan, onuradunak ez badira sektore publikoko kontratazio-organo, gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde eskaintza horiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta gastua ez den dirulaguntzaren aurretik egin. Halako kasuetan, kostuen moderazioa egiaztatu beharko da, justifikazio-memoria baten bidez.

Eskaintzek benetakoak eta ez-fikziozkoak izan behar dute, hornitzaile erreal eta independenteenak, eta behar bezain zehatzak izan behar dute, eta elementu berak izan, alderagarriak izateko. Aurkeztutako hiru eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikoki abantailatsuen hautatzen ez bada, memoria batean beren-beregi justifikatu beharko da horren arrazoia.

5.– Ez dira diruz lagunduko merkatukoak baino balio handiagoa duten gastuak, ez eta diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat ez datozenak edo jarduera garatzeko behar-beharrezkoak ez direnak ere. Sasoikako langileentzako ostatueta bete beharreko gutxieneko baldintzak arautzen dituen azaroaren 28ko 248/2006 Dekretuan xedatutakoa beteko da betiere.

4. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Laguntzei dagozkien inbertsioak edo gastuak urtean edo hainbat urtetan gauzatu ahal izango dira. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2024. urtean hasi beharko dute.

2.– Urteko proiektuak gauzatzeko epea 2024ko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, epe hori luzatu egin ahal izango da, agindu honen 14. oinarriaren 4. paragrafoan xedatutakoaren arabera. Betiere, luzatutako urteko proiektuak gauzatzeko gehieneko muga 2025eko abenduaren 31 izango da.

Urte anitzeko proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, epe hori luzatu egin ahal izango da, agindu honen 14. oinarriaren 4. paragrafoan xedatutakoaren arabera. Luzapena, gehienez ere, 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

5. oinarria.– Diruz lagundutako jardueraren azpikontratazioa.

1.– Diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala hirugarrenei azpikontratatu ahal izango die onuradunak, baldin eta hirugarren horiek ez badira onuradun. Proiektua gauzatzeko azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren % 100ekoa izan daiteke.

2.– Baldin eta hirugarrenekin itundutako jardueraren ordainketak dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 gainditzen badu, dirulaguntza 60.000 eurotik gorakoa izanik, idatzizko kontratua egin beharko da, zeina landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunak baimendu beharko baitu kontratua formalizatu aurretik eta eskabidea aurkeztu ondoren.

3.– Kontratua ezin izango da zatikatu kontratuaren zenbatekoa murriztu eta 2. paragrafoko betekizunak bete beharrik ez izateko helburuz.

4.– Kontratistek onuradunarekiko bakarrik dituzte betebeharrak, eta onuradunak dauka diruz lagundutako jarduera ondo gauzatzeko erantzukizun osoa, landa-garapenaren arloko sail eskudunaren aurrean.

5.– Aurreko apartatuan aurreikusitakoa betetzeko, onuradunen erantzukizuna da hirugarrenekin itundutako jarduera diruz lagungarria egikaritzean diruz lagungarri diren gastuen izaera eta zenbatekoari dagozkion mugak eta 8. oinarrian ezarritako betebeharrak errespetatzen direla zaintzea.

6.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 46. artikuluan aurreikusitako lankidetzeta-betebeharra bete beharko dute kontratistek, muga horiek betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko.

7.– Alabaina, onuradunak ezingo du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

- a) 2. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.
- c) Bitartekari edo aholkulariak, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu osoaren ehuneko jakin bat badira, non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.
- d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, inguruabar hauek betetzen direnean izan ezik:
  - 1) Dirulaguntza ematen duen organoaren berariazko baimena eskuratu izana, aldez aurretik.
  - 2) Diruz lagundutako zenbatekoak ez gainditzea lotutako entitateak izandako kostua. Kostua egiaztatzeko, pertsona onuradunaren gastuak frogatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.
  - e) Deialdi eta programa berean laguntza eskatu duten, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoak.

6. oinarria.– Laguntzen zenbatekoa, gehienekoa eta bateragarritasuna.

1.– Onuradunei eman beharreko laguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan, oro har, diruz lagundu daitekeen inbertsio edo gastuaren % 60 baino handiagoa. Halere, kasu hauetan ehuneko hori handitu egingo da:

- a) Onuraduna nekazari gaztea bada instalatu eta hurrengo bost urteetan, ehuneko hori % 10 gehiago handituko da.
- b) Kasu hauetan, ehuneko hori % 15 gehiago handituko da: onuraduna emakume nekazaria izatea, edo, onuraduna pertsona juridikoa bada, emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 izatea, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua izatea, gainerako kasuetan.
- c) Erakunde publikoak direnean, aipatutako ehunekoa % 20 gehiago handituko da.

2.– Laguntza bakoitzaren zenbateko indibidualizatua 7. oinarrian ezarritako balorazio-irizpide orokorren arabera zehaztuko da.

3.– 20.000 eurokoa izango da sasoikako langileentzako ostaturako higiezinak eraikitzeke edo, hala badagokio, eskuratzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa.

4.– Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako *de minimis* araubidea aplikatu beharko zaie laguntza hauei.

5.– Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo pribatu batzuek helburu bererako ematen dituztenekin, baldin eta guztien artean ez bada gainfinantzaketarik gertatzen diruz lagundutako jardueran. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu beharko da, soilik jarduera horren guztizko kostua gainditzen duen zenbatekoan.

6.– Era berean, laguntza hauek batu ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuek, agindu honetakoak ez diren xedeekin, onuradun berdinei emandako *de minimis* laguntzei; halere, guztien artean ez dute 300.000 euroko laguntza gaindituko, onuradun bakoitzeko eta 2021eko, 2022ko eta 2023ko zerga-ekitaldietan, erregelamendu honek xedatutakoaren arabera: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua. Kasu horretan, agindu hau betez eman beharreko zenbatekoak gutxituko dira gehieneko atalase horretara egokitu arte.

7.– Gainera, «*de minimis* laguntza» ezingo zaio pilatu diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokien laguntzari, pilaketa horrek kategoriakako salbuespen-erregelamenduan edo Batzordeak hartutako ebazpenean kasu bakoitzaren inguruabar zehatzetarako ezarritakotik gorako laguntza-pilaketa badakar.

7. oinarria.– Finantzaketa eta emateko prozedura.

1.– Agindu honen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura 2024ko ekitaldian eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 80.000 eurokoa da.

2.– Laguntza horiek emateko prozedura segidako konkurrentzia bidezkoa izango da eta, beraz, espedienteak eskabideen aurkezte-ordenaren arabera aztertu eta izapidetuko dira, eta behar bezala formulatu eta osatu diren ordenaren arabera ebatziko dira.

3.– Laguntza horietara xedaturiko aurrekontua agortuz gero, egoeraren berri emango da Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta. Dagoeneko aurkeztu diren eta izapide-fasean dauden eskaerak, esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortzeagatik erantzun ezin direnak, ukatu egingo dira arrazoi hori dela eta, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

4.– Aurkeztutako jarduera bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan, aurkeztutako eskaerak baloratuko dira. Kokapenari, sustatzaileari eta proiektuari buruzko irizpideak aplikatuko zaizkie horiei. Hauek dira azpi-irizpideen banakapena eta bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioa:

1) Gehienez ere 100 puntu emango dira.

2) Honela emango dirua puntuak:



A) Kokapena: ostatuaren kokapena, eremuko ostatu-beharrizanekin lotuta: gehienez ere 20 puntu.

1) Kalteberatasun-maila, agindu honen V. eranskinean jasotakoaren arabera: gehienez ere 10 puntu.

a) Kalteberatasun-maila KM1 edo ABE (arreta bereziko eremua): 10 puntu.

b) Kalteberatasun-maila KM2: 7 puntu.

c) Kalteberatasun-maila KM3: 5 puntu.

d) Kalteberatasun-maila KM4: 3 puntu.

e) Hirigunea: 0 puntu.

2) Lehentasunezko eskualdeak. Gehienez ere 10 puntu.

a) Arabako Errioxa: 10 puntu.

b) Arabako Lautada eta Mendialdea: 8 puntu.

c) Beste eskualde batzuk: 5 puntu.

B) Sustatzailea:

1) Entitate publikoak:

a) Indarrean dagoen Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoikako lanaren programari atxikita egotea. Bai: 40 puntu / Ez: 0 puntu.

2) Entitate pribatuak:

a) Indarrean dagoen Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoikako lanaren programari atxikita egotea. Bai: 20 puntu / Ez: 0 puntu.

b) Jarduera nagusia nekazaritza izatea. Bai: 5 puntu / Ez: 0 puntu.

c) Nekazaritzako ustiategi bateko emakume nekazari titularra edo titularkidea izatea, edo, pertsona juridikoa bada, emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 izatea kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan. Bai: 15 puntu / Ez: 0 puntu.

C) Proiektua: gehienez ere 40 puntu.

1) Ostatu hartzeko plaza-kopurua. Gehienez ere 20 puntu.

a) 8 plaza artekoak: 10 puntu.

b) 9 eta 16 plaza bitartekoak: 15 puntu.

c) 16 plaza baino gehiagokoak: 20 puntu.

2) Kostuaren eta plazen arteko erlazio egokiena: gehienez ere 20 puntu.

a) 7.000 euro baino gehiago plaza bakoitzeko: 5 puntu.

b) 3.000 eta 7.000 euro artean plaza bakoitzeko: 15 puntu.

c) 3.000 euro baino gutxiago plaza bakoitzeko: 20 puntu.

5.– Aurreko irizpideak aplikatuz proiektuak lortu duen puntuazioaren arabera, proiektu bakoitzari emango zaion laguntza honela zehaztuko da:

100 puntu:	laguntzaren % 60	79 puntu:	laguntzaren % 39
99 puntu:	laguntzaren % 59	78 puntu:	laguntzaren % 38
98 puntu:	laguntzaren % 58	77 puntu:	laguntzaren % 37
97 puntu:	laguntzaren % 57	76 puntu:	laguntzaren % 36
96 puntu:	laguntzaren % 56	75 puntu:	laguntzaren % 35
95 puntu:	laguntzaren % 55	74 puntu:	laguntzaren % 34
94 puntu:	laguntzaren % 54	73 puntu:	laguntzaren % 33
93 puntu:	laguntzaren % 53	72 puntu:	laguntzaren % 32
92 puntu:	laguntzaren % 52	71 puntu:	laguntzaren % 31
91 puntu:	laguntzaren % 51	70 puntu:	laguntzaren % 30
90 puntu:	laguntzaren % 50.	69 puntu:	laguntzaren % 29
89 puntu:	laguntzaren % 49	68 puntu:	laguntzaren % 28
88 puntu:	laguntzaren % 48	67 puntu:	laguntzaren % 27
87 puntu:	laguntzaren % 47	66 puntu:	laguntzaren % 26
86 puntu:	laguntzaren % 46	65 puntu:	laguntzaren % 25
85 puntu:	laguntzaren % 45	64 puntu:	laguntzaren % 24
84 puntu:	laguntzaren % 44	63 puntu:	laguntzaren % 23
83 puntu:	laguntzaren % 43	62 puntu:	laguntzaren % 22
82 puntu:	laguntzaren % 42	61 puntu:	laguntzaren % 21
81 puntu:	laguntzaren % 41	60 puntu:	laguntzaren % 20
80 puntu:	laguntzaren % 40		

6.– Proiektuek, hautatuak izateko, gutxienez 60 puntu lortu behar dituzte.

8. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritakoak ere:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza onartzen dutela ulertuko da baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean ez badiote beren-beregi eta idatziz uko egiten.

b) Dirulaguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea. Horretarako, laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean egin beharko du diruz laguntzen den jarduera; deialdiaren urtean hasi behar dira inbertsioa edo gastua.

c) Ondasun higiezinak eraiki edo birgaitzeari dagokionez, gutxienez 5 urtez eutsi beharko zaie dirulaguntzaren helburu diren inbertsioei, bai eta gainerako ondasunei dagokionez ere; epe horretan, ezin izango dira besterendu, ezta amortizatu, ezta diruz laguntzen den helbururako barik beste helburu baterako erabili. Sasoikako langileentzako ostaturako erabiltzeaz gain, higiezinak beste xede batzuetarako ere erabiltzen badira, nekazaritza-kanpainetan lehentasuna emango zaio sasoikako langileentzako ostatuaren erabilerari.

d) Higiezina sasoikako langileei ostatu emateko egokitzat jotzen duen baimena lortzea, azaroaren 28ko 248/2006 Dekretua aplikatuta –248/2006 Dekretua, azaroaren 28koa, sasoikako langileentzako ostatueta bete beharreko gutxienerako baldintza materialak eta funtzionalak eta haien baimentzea, erregistroa eta egiaztapena arautzen dituen–, bai eta dagokion erregistroan inskribatzea ere.

e) Landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunari jakinarazi behar diote proiektu osoa edo zati bat egin dutela, eta haren esku utzi behar dituzte proiektuak gauzatu dituztela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

f) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri eman behar diote landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari, idatziz. Egoera horren berri izan bezain laster jakinarazi behar zaio, eta, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.

g) Landa-garapenaren arloko sail eskudunari, Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko zaie.

h) Landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari jakinaraztea helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide publiko edo pribatu batzuk jaso izana eta 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan beste *de minimis* laguntza batzuk jaso izana. Horren berri izan eta hurrengo hamabost egunen barruan egin beharko da jakinarazpen hori. Era berean, onuradunak gainfinantzaketarik ez egiteko konpromisoa hartu behar du.

i) Diruz lagundutako proiektuei buruz ematen den informazio edo publizitate guztian, argiki jasotzea Eusko Jaurlaritzaren funtsekin finantzatu direla proiektuok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan xedatuarekin bat.

j) Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

k) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzak gauzatzeko erabil baitaitezke; bost urtez gorde beharko dira, inbertsioen amaiera-datatik aurrera.

l) Onuradunak, halakorik eskatzen bazaio, informazio osagarria bidali beharko du landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzara, diruz

lagundutako jardueren garapenaz eta burutzapenaz egoki iritzitako egiaztapen guztiak egin ahal izateko hark.

m) Jarduerarekin lotutako jakinarazpen guztietan, hizkuntza inklusiboa erabiliko da irudietan zein testuetan. Ekitaldiaren publizitatean, euskarria edozein dela ere, ez da erabiliko hizkuntza edo irudi sexistarik.

n) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean mantentzea. Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betebeharrak hori betetzen dela, onuradunen alde-tik berariazko baimenik behar izan gabe; beren-beregi uko egiten zaionean salbu, kasu horretan, egiaztatu egin beharko baitu kontu hori.

9. oinarria.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Eskabideak, oinarri honen 7. apartatuan aurreikusitako agiriekin batera, landaren eta itsa-sertzaeren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio.

Aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egu-nean hasiko da, eta horretara bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko. Kasu horretan, 7. oinarriaren 3. apartatuan xedatutakoa errespetatu beharko da. Betiere, eta aurrekontu erabilgarria izanda ere, laguntza-eskabideak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 15ean amaituko da.

2.– Pertsona juridikoek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikularen 1. paragrafoa a), b), c) eta d) apartatuetan aurreikusitako gainerako subjektuek eta ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15.1.a) artikuluan jasotakoek modu elektronikoa aurkeztu beharko dute eskaera, oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbideen bitartez (91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

Pertsona fisikoek modu presentzian zein elektronikoa aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko moduak (elektronikoa zein aurrez aurrekoa) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, eta noiznahi aldatu ahal izango da.

– Aurrez aurre: eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publi-koen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Admi-nistrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko ezinbes-tekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea: <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>

– Bide elektronikoa: 3. apartatuan adierazitakoaren arabera.

3.– Eskabideak bide elektronikoz nahiz presentziaz aurkezteko, eskaerarako inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da. Eredu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1013811>

4.– Kanal elektronikoa bidez eskaera egin ondorengo izapideak, jakinarazpenak eta jus-tifikazioak barnean direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» gunearen bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Izapideak elektronikoki egiteko, helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

6.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkariak. Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

7.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte laguntzen eskatzaileek:

a) Hirugarrenen alta. Egoitza elektronikoa izapidetu ahal izango da, esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

b) Pertsona juridikoen, eratzeko eskrituraren kopia bat eta estatutuen kopia bat (dagokion erregistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita).

c) Pertsona juridikoa izanez gero, zuzendaritza-organoen osaera egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Erakunde publikoen kasuan izan ezik, nekazaritza-ustategiaren titularra edo titularkidea izatearen egiaztagiria.

e) Ondasun higiezin ostatu gisa egokitzeko erabiltzeko baimena ematen duen tituluaren kopia, hura jabetza osoan edo partekatuan, errentamenduan, gozamenean edo prekarioan eduki.

f) Pertsona fisikoen edo nortasun juridikorik gabeko pertsona juridiko pribatuen elkarteak edo ondasun-erkidegoak direnean, eskabideek berriaz adierazi behar dituzte, eskaerari erantsitako dokumentu batean, elkarteko kide bakoitzak proiektua egikaritzeko hartzen dituen konpromisoak, eta bakoitzak egikaritu beharreko aurrekontu-zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Nolanahi ere, elkarteek ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute, eta behar besteko ahalmena eman betearaz ditzan elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak. Elkarte ezingo da desegin, harik eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

g) Egin beharreko inbertsioa edo gastua deskribatzen duen memoria. Bertan, aurreikusitako egikaritze-epeak, kokalekua, finantzaketa nahiz aurrekontua adierazi beharko dira, behar beste zehatuta, edo proforma fakturak.

h) Nahitaezko kasuetan, ostatuei buruz indarrean dauden xedapen espezifikoetara egokitzen den proiektu teknikoa, bai eta hura gauzatzeko behar diren baimen eta lizentziak ere, edo, bestela, haiek eskuratzeko eskabidea.

i) Hala badagokio, Sasoikako Lanaren Arretarako Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoikako lanaren programari atxikita dagoela adierazten duen «konpromisoaren» kopia.

j) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatzen baita eskatzaileak agindu honetako betekizunak betetzen dituela, aurkezten dituen agiriak egiazkoak direla eta betekizunak betetzen dituela, hori egiaztatzeko dokumentazioa duela, eta Administrazioak eskatzen dionean haren esku utziko duela.

k) Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta abian den ekitaldi fiskalean jasotako gainerako *de minimis* laguntza guztiei dagokien enpresa-adierazpena, baldin eta laguntzok erregelamendu honen edo bestelako *de minimis* erregelamenduen mende badaude.

l) Azken bi urteetako kontu ikuskatuen kopia, sozietateen zerga edo PFEZaren aitortpena.

m) Jarduerari emandako laguntza publikoari edo pribatuari dagozkion beste dirulaguntza edo diru-sarrera batzuen ziurtagiria (adibidez: Udala / Foru Aldundia / Eusko Jaurlaritza / beste batzuk).

n) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria eta NAN/IFK identitatea, eskatzaileak informazio hori Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatzearen aurka berriaz egin duen kasuetan.

o) Onuradun edo entitate laguntzaile izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikulua 1. paragrafotik 4.era bitartean aipatzen dira debekuak–, bide hauek dituzte pertsona edo entitateek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeko dago-kion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, ziurtagiri administratiboa. Agiri hori agintaritza eskudunak egiterik ez badu, haren orde z oinarri honen 7.b) apartatuan aipatzen den erantzukizun-peko adierazpena.

Dirulaguntza baloratzeko eta kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko eskabidean jasotako datu edo merezimenduak, agiri bidez justifikatu ez badira.

Gainera, dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. paragrafoan.

8.– Oinarri honetako 7. paragrafoan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean eta eskatzaileak berriaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat. Eskatzaileak adierazi beharko du zein Administraziotan aurkeztu diren eta zein unetan aurkeztu diren. Hala ere, eskatzaileak espresuki uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, dokumentazioa aurkeztu beharko du.

9.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu daitezke laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa. Gainera, laguntzen eskabidearen ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak aurkezten duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera.

10.– Eskaerak betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, hirugarrenen altaren kasuan izan ezik, landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskuduneko titularrak ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

11.– Landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunak, edonola ere, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

12.– Agindu honen 2. oinarriaren 1.B paragrafoan zehaztutako onuradunen kasuan, proiektuan parte hartzen duten enpresa edo erakunde guzti-guztiei buruzkoak izango dira oinarri honen 7. apartatuan adierazitako agiriak.

10. oinarria.– Organo kudeatzailea eta ebazpen-proposamena.

1.– Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzea.

2.– Landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute agindu honetan ezarritako eskakizunak betetzen direla. Era berean, egin beharreko inbertsioaren edo gastuen deskribapen-memoria aztertuko dute, 7. oinarrian ezarritako irizpideak zenbateraino bete diren ebaluatuko dute, eta, horiek oinarri hartuta, txosten bat egingo dute, eman beharreko laguntzaren zenbatekoaren haztapena eta kalkulua adierazita.

3.– Txosten hori kontuan hartuta, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren titularrak ebazpen-proposamen bat egingo du, dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzailea eta dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita.

4.– Prozeduran interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira, edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie, 10 eguneko epea emanda, alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.

5.– Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan –ez dagoelako interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik–, oinarri honen beraren 3. apartatuaren arabera emandako ebazpen-proposamenak behin betiko izaera izango du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

11. oinarria.– Ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko era eta errekursoak.

1.– Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak ebazpena emango du, eskatutako laguntza emateko edo ukatzeko eskatzaileari.

2.– Ebazpenak informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

A) Baietsitako eskabideei dagokienez:

- 1) Onuradunen izena edo sozietate-izena.
- 2) Diruz lagundutako proiektuaren izena eta kokapena.
- 3) Diruz lagundu daitezkeen inbertsioa eta gastuak, lortutako puntuazioa eta laguntzaren ehunekoa.
- 4) Dirulaguntzaren zenbatekoa.
- 5) Proiektua egikaritzeko gehieneko epea.
- 6) Laguntzaren *de minimis* izaera adieraztea eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren aipamen zehatza egitea (2023ko abenduaren 15eko EBAO, 2831. zenbakia).

B) Ezetsitako eskabideei dagokienez:

- 1) Eskatzaileen izena edo sozietate-izena.

## 2) Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Ebazpena banaka eman eta jakinaraziko da, gehienez ere lau hileko epean eskabidea eta dokumentazio osoa aurkeztu direnetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpen espresurik ez badago, eskabideak ezetsi egin direla ulertu beharko dute interesdunek, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Prozeduraren ebazpenaren aurka, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko edo landa-garapenaren arloko eskumena duen saileko titularrari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat.

6.– Aurreikusitako laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Landa- eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria ebazpen baten bidez, EHAAn argitaratuko da emandako dirulaguntzen eta laguntza jasoko duten pertsonen zerrenda, bai eta horiei dagozkien zenbatekoak ere, herritarrak jakinaren gainean egon daitezten.

## 12. oinarria.– Justifikazioa.

1.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua betez, dirulaguntza jaso duen inbertsio- edo gastu-proiektuaren gauzatzea eta onuradun izateko eskatutako betekizun eta baldintzak betetzen direla justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunari:

a) Egindako jardueren justifikazio-memoria bat, non jasoko baita proiektua gauzatzeari eta haren betetze-mailari buruzko informazioa, eta laguntza emateko betekizun eta baldintzen betetze-mailari buruzkoa.

b) Fakturak eta frogak gisa balio bera duten gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balio dutenak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, faktura jaulkitzeko beharrik ez dagoen kasuetan, Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren 3. artikuluekin bat etorritik betiere (azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua), eta dagozkien ordainketa-frogagiria.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagiria ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

d) Behar izanez gero, dirulaguntzak itzultzeagatik dagozkion betebeharrak ordaindu dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

2.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzeari dagozkionez, landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunak egiaztatuko du automatikoki eta ofizioz. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak berriaz uka dezake baimen inplizitu hori, eta, hala egiten badu, dagozkion ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du.



3.– Landa-garapenaren alorrean eskumena duten zuzendariak agiri gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo. Eskabide horrek arrazoituta egon beharko du.

4.– Aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, proiektuaren azken ebaluazioa egingo dute landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskuduneko langileek, eta proiektuak berekin soilik inbertsioa edo soilik gastua badakar, edo inbertsioa eta gastua elkarrekin, proiektua gauzatu dela adierazten duen azken ziurtagiria egingo dute.

5.– Kudeaketa egokia eta laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio-agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean ezarritako inbertsioa edo gastua amaitzeko azken egunetik edo luzapenaren azken egunetik aurrera.

### 13. oinarria.– Ordainketa.

1.– Ordainketak honela egingo dira:

a) Aurreko artikuluan ezarritako baldintzetan laguntza justifikatu ondoren egingo dira ordainketak, eta landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskuduneko langile teknikoek ziurtatu ostean; azken ordainketa egin baino lehen, erakunde onuradunak aurkeztu beharko ditu higiezin sasoikako langileentzako ostatu izan dadin beharrezkoa den baimena eta dagokion erregistroa, azaroaren 28ko 248/2006 Dekretuaren arabera.

b) Inbertsioa partzialki edo osorik egin dela jakinarazi eta gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da ordainketa.

c) Ekitaldi bakoitzeko bi ordainketa partzial egin ahal izango dira, interesdunak hala eskatuta, aurreko puntuan aipatzen diren ziurtagiriak, alegia, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeak, aurkeztu ondoren. Proiektuak hainbat urtetan gauzatzekoak badira, ekitaldi bakoitzean egingo da urte bakoitzean egindako inbertsioen edo gastuen ordainketa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen alorrean indarrean dauden eta maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioei eta partzuegoei aplika dakiekeen aurrekontu-araubidea arautzen duten legezko xedapenen testu bateginaren 111.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Inbertsioak ez badira egiten gehieneko epeen barruan, ezta epeen luzapenean ere, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeak agiriak ez badira aurkezten epe barruan, onuradunak dirulaguntza hartzeko eskubidea galduko dute, eta, hala badagokio, agindu honen 16. oinarriko itzulketa-prozedura jarriko da abian.

3.– Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei eta ondasun-erkidegoei dagokienez, funtsen hartzaile izateko izendatu den kideari egingo zaio ordainketa, eta hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean.

4.– Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren datu-base egokian egon beharko du. Hirugarren interesdun gisa alta emateko edo datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

5.– Betiere, onuradunari ez zaio inolako ordainketarik egingo, baldin eta egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo itzulketa-ebazpen batek adierazita zordun bada. Debeku horrek bere horretan iraungo du aipatutako zirkunstantziak gertatzen diren bitartean, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.4 artikulua aplikatuz.

14. oinarria.– Dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzea eta inbertsioa edo gastuak gauzatzeko epeak luzatzea.

1.– Beste erakunde publiko nahiz pribatu batetik beste laguntza edo dirulaguntzaren bat (edo bestelako diru-sarrera edo baliabideren bat) jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio landa-garapenaren arloko zuzendaritza eskudunari, eta, horren ondorioz, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen xedea bete behar izango dira. Horretarako, landa-garapenaren arloan eskumena duen sailburuordeak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, hala egokituz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko. Hala badagokio, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan jasotako itzulketa-prozedurari ekingo zaio.

2.– Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan egiten dituen aldaketak idatziz jakinarazi eta behar bezala justifikatu beharko ditu onuradunak, landa-garapenaren arloko sailburuordetza eskudunaren aurrean.

Aurkeztu eta dirulaguntza eman zaion proiektuan egiten diren funtsezko aldaketak onartu egin beharko dira, landa-garapenaren arloko sailburuordetza eskuduneko titularraren ebazpen baten bidez. Honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

- a) Aldaketa esanguratsuak egitea edo proiektuan hasieran ezarritako helbururen bat ezabatzea.
- b) Proiektua gauzatzeko egutegia aldatzea.
- c) Proiektua gauzatzeko ezarritako faseren bat deuseztatzea.
- d) Gastu-kontzeptuak aldatzea, hasieran onartutako gastuez gain beste batzuk ere sartuz.
- e) Proiektuan parte hartzen duten agenteetatik bateren bat ordeztu edo kentzea.

Aldaketek ez dute inoiz ekarriko emandako laguntza handitzea. Aldaketak funtsezkoak ez direnean, aldaketa horiek ez dira onartu beharko landa-garapenaren arloko sailburuordetza eskuduneko titularraren ebazpen baten bidez.

3.– Baldin eta eginiko gastu edo inbertsioaren behin betiko kostu erreala txikiagoa bada onartutako eta dirulaguntza emateko erreferentziatzat hartutako aurrekontua baino, eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, landa-garapenaren arloko sailburuordetza eskuduneko titularraren likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio dirulaguntzaren ehunekoa.

4.– Landa-garapenaren alorrean eskumena duen sailburuordetzako titularrak, ebazpen baten bidez, proiektua gauzatzeko epea atzeratu ahal izango du. Horretarako, onuradunak eskatu eta justifikatu egin beharko du, proiektu-gauzatzea bukatu behar den eguna baino 30 egun lehenago, beranduenez. Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea inola ere ez da izango 4. oinarriak xedatzen duena baino luzeagoa.

15. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntzaren eskatzaileak atzera egin dezake, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik, betiere. Horretarako, idatzi bat helaraziko dio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren titularrari, zeinak, ebazpen baten bidez, zuzenean onartuko baitu atzera-egite hori, eta prozedura hori amaitutzat emango baitu pertsona horri dagokionez.

2.– Onuradunek laguntzei uko egin ahal izango diete, laguntza onartu ondoren ere –agindu honen 15. artikulua 3. apartatua ezarritako betebeharrarekin bat etorriz, emandako laguntza onartzeko betebeharra dute onuradunek–, baina, betiere, inbertsioa edo gastua amaitu aurretik, eta baldin eta Administrazioak inolako ordainketarik egin ez badu. Uko egitea adierazteko, idazki bat aurkeztu beharko dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren titularrari, zeinak, ebazpen baten bitartez, esanbidez onartuko baitu uko-egite hori, eta prozedura hori amaitutzat emango baitu pertsona horri dagokionez. Behin uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

16. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Gutxienez, honako hauek izango dira ez-betetzeen kausak:

a) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edozein ez betetzea.

b) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak ez betetzea, laguntza emateko helburua erabat hutsalduz.

c) Laguntza emateko helburua ez betetzea.

d) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako itzulketa-kausaren batean erortzea.

2.– Onuradunak aurreko apartatua zerrendatutako ez-betetzeetakoren bat egingo balu, laguntza emateko organo eskudunak, ez-betetzeari buruzko espedientea egin eta interesdunari entzun ondoren, 15 eguneko epea eman eta gero egokitzen jotzen dituen alegazioak egiteko, ebazpen baten bidez adieraziko du dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu duela eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkiola jasotako laguntzak eta dagozkion berandutze-interesak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe bidezkoak izan daitezkeen gainerako ekintzak. Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

3.– Ezarritako baldintzak eta betebeharrak partez betetzeak, baldin eta, betiere, osorik betetzetik hurbiltzen bada modu esanguratsuan eta onuradunak argi eta garbi konpromisoak betetzeko jardun duela egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat ordaintzea ekarriko du, edo, hala badagokio, zati bat itzultzea, zeina zehaztuko baita egindako jarduera osoak guztizkoarekiko duen proportzioa kalkulatu. Betiere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbatekoa benetan eta behar bezala justifikatuta eman den dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, organo emaileak justifikazioa egiaztatu eta onartu ondoren.

4.– Arau-hauste administratiboak izan litezkeen gertakarien ondorioz hasi bada itzultze-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

17. oinarria.– Datuen babesia.

Agindu hau aplikatuta biltzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Helbide honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/037400-cap2-eu.shtml>

## II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DIRULAGUNTZAREN ONURADUN IZATEKO  
BETEKIZUNAK BETETZEARI ETA DEBEKURIK EZ IZATEARI BURUZKOA

Nik, \_\_\_\_\_ jaunak/andreak (NAN/AIZ: \_\_\_\_\_);  
helbidea: \_\_\_\_\_),

nire erantzukizunpean, hau adierazten dut:

– Honako laguntza hauek emateko oinarri arautzaileetan eskatutako betekizunak betetzen ditut: nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitzeko edo ekipatzeko laguntzak, *de minimis* araubidean, 2024. urterako.

– Ez nago laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez dut eskatu borondatezko konkurtsoaren deklaraziorik, ez naute ezein prozeduratan kaudimengabetzat jo, ez naiz konkurtsoan deklaraturik izan –salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek–, ez nago esku-hartze judizialaren pean edota ez naute desgaitu Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitasun-aldia amaitu ez bada.

– Ez dut eragin, kausaren batean errudun deklaraturik izateagatik, administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik.

– Ez nago honako lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez naiz Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargua, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

– Ez dut egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako ezein herrialde edo lurraldetan.

– Ez dut zehapen-ebazpen irmorik jaso, dirulaguntzak jasotzea galarazten didanik, lege honen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera. Zehazki, ez naute zehatu –zigor- edo administrazio-bidean– sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

– Ez dut zehapenik jaso Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bul-tzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean, ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

– Bete dut, hala badagokio, desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

– Egunean dut dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9.4.p) artikuluekin bat etorriz, enpresen deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dut, aipatutako legearen 49. artikulua araberara.

Konpromisoa hartzen dut aurretik adierazi dudana betetzeko, adierazpen hau aurkezten dudanetik deialdia ebatzi eta emandako dirulaguntza osoa justifikatu arteko denbora-tarte osoan.

Gainfinantzaketarik ez izateko konpromisoa hartzen dut.

Konpromisoa hartzen dut adierazitako inguruabarretan gerta daitekeen edozein aldaketa jakinarazteko, emandako dirulaguntza osoa justifikatu arte.

xxxx, Sin.:

## III. ERANSKINA

## ORDAINKETA-EPEAK BETETZEA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua

(eranskin honen ondorioz aurkeztu beharreko dokumentazioa ez zaie eskatuko irabazi-asmorik ez duten erakundeei. 30.000,00 euro edo gutxiagoko dirulaguntza eskatzen bada ere ez da eskatuko).

Onuradunaren edo erakunde laguntzailearen izaera lortzeko, Merkataritza-eragiketetan beran-kortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko erakundeak ez beste guztiek), irabazteko asmoa duten heinean, egiaztatu egin beharko dute betetzen dituztela lege horretan ezartzen diren ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis apartatuan xedatutakoaren arabera.

Betetze-maila egiaztatzeko, honako frogagiri hauek aurkeztu ahal izango dira:

A) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan administrazio-organoak edo haren baliokideak sinatuta.

Horrez gainera, b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudiari jarraituz.

B) Kontabilitateko araudiaren arabera pertsona juridikoek ezin badute aurkeztu galeren eta irabazien kontu laburtua, honako agirietako bat aurkeztu ahal izango dute:

1. Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek sinatutako ziurtagiria, zeinean banakatuta agertzen baita ikuskatutako azken urteko kontuen memorian azaltzen diren ordainketei buruzko informazioa, baldin eta kontu horien arabera abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-mailara (apartatu honetan ezartzen dena) iristen bada, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatzen den informazioari kasu eginez.

Hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte izango da baliozkoa ziurtagiri hori.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria egiterik ez badago, adostutako prozedurei buruzko txostena aurkeztu ahal izango da, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egina, oinarritzat hartuz erreferentzia-data batean sozietatearen hornitzaileei ordaindu gabe dauden fakturen lagin adierazgarri bati egin zaien berrikusketak, ondorioztatzen duena inolako salbuespenik gabe bete direla abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak, edo, salbuespenik antzemanaz gero, salbuespenek ez dutela eragotzi apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea.

Lege honen ondorioetarako, ordainketa-epeak betetzeko baldintza betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epe horien betetze-maila Enpresak Sortu eta Hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

## IV. ERANSKINA

## DE MINIMIS LAGUNTZEI BURUZKO ADIERAZPENA

Eskatu ditu/Ez ditu eskatu eta Lortu ditu/Ez ditu lortu diruz laguntzekoa den gastu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabide ekonomikoak –*de minimis* araubidean– administrazio publiko edo entitate publiko nahiz pribaturen baten eskutik 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan. Lortu baditu,

2021: lortutako zenbatekoa: eta entitate deitzailea: 2022: lortutako zenbatekoa: eta entitate deitzailea: 2023: lortutako zenbatekoa: eta entitate deitzailea:

2024ko maiatzaren 7a, asteartea

## V. ERANSKINA

## KALTEBERATASUN-MAILAK

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Alegría-Dulantzi Alegría-Dulantzi	4
Alegría-Dulantzi Egileta	3
Amurrio Aloria	2
Amurrio Berganza-Onsoño-Aldama-Pardio-Mariaka	2
Amurrio Artomaña	3
Amurrio Baranbio	3
Amurrio Delika	2
Amurrio Larrinbe	4
Amurrio Lekamaña	3
Amurrio Lezama	4
Amurrio Saratxo	3
Amurrio Tertanga	2
Aramaio Arexola	2
Aramaio Azkoaga	2
Aramaio Barajuen	2
Aramaio Etxaguen	2
Aramaio Gantzaga	2
Aramaio Ibarra	3
Aramaio Oleta	2
Aramaio Untzilla	2
Aramaio Uribarri	2
Artziniega Artziniega	3
Artziniega Campijo	2
Artziniega Gordeliz	2
Artziniega Mendieta	2
Artziniega Retes de Tudela/Erretes Tudela	2
Artziniega Santa Koloma	2
Artziniega Sojoguti/Soxoguti	2
Armiñón Armiñón	Arreta bereziko eremuak
Armiñón Estavillo	Arreta bereziko eremuak
Armiñón Lacorzana	Arreta bereziko eremuak
Arratzua-Ubarrundia Arroiabe	3
Arratzua-Ubarrundia Arzubiaga	2
Arratzua-Ubarrundia Betolaza	3
Arratzua-Ubarrundia Ziriano	2
Arratzua-Ubarrundia Durana	4
Arratzua-Ubarrundia Landa	2
Arratzua-Ubarrundia Luko	4
Arratzua-Ubarrundia Mendibil	2
Arratzua-Ubarrundia Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa	4



2024ko maiatzaren 7a, asteartea

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Arratzua-Ubarrundia Ullíbarri-Gamboa	4
Arratzua-Ubarrundia Zurbano/Zurbao	4
Asparrena Albeiz/Albéniz	3
Asparrena Ametzaga Asparrena	3
Asparrena Andoin	2
Asparrena Araia	4
Asparrena Arriola	3
Asparrena Egin	2
Asparrena Gordo	2
Asparrena Iburguren	4
Asparrena Ilarduia	3
Asparrena Urabain	3
Ayala/Aiara Agiñaga	2
Ayala/Aiara Añes	2
Ayala/Aiara Beotegi	2
Ayala/Aiara Costera/Opellora	2
Ayala/Aiara Etxegoien	2
Ayala/Aiara Erbi	2
Ayala/Aiara Izoria	3
Ayala/Aiara Lejarzo/Lexartzu	2
Ayala/Aiara Luxo/Lujo	2
Ayala/Aiara Luiaondo	4
Ayala/Aiara Llanteno	2
Ayala/Aiara Madaria	2
Ayala/Aiara Maroño	2
Ayala/Aiara Menagarai	2
Ayala/Aiara Menoio	2
Ayala/Aiara Murga	3
Ayala/Aiara Ozeka	2
Ayala/Aiara Olabazar	2
Ayala/Aiara Quejana/Kexaa	2
Ayala/Aiara Arespalditza/Respaldiza	3
Ayala/Aiara Retes de Llanteno	2
Ayala/Aiara Salmantón	2
Ayala/Aiara Soxo/Sojo	2
Ayala/Aiara Zuaza/Zuhatza	2
Baños de Ebro/Mañueta Baños de Ebro/Mañueta	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Audikana	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Dallo	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Etxabarri Urtupiña	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Elgea	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Etura	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Gebara	Arreta bereziko eremuak

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Barrundia Heredia	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Hermua	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Larrea	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Marieta-Larrintzar	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Maturana	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Mendixur/Mendijur	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Ozaeta	Arreta bereziko eremuak
Barrundia Barrundia	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Berantevilla	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Escanzana	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Lacervilla	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Lacorzanilla	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Mijancas	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Santa Cruz del Fierro	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Santurde	Arreta bereziko eremuak
Berantevilla Tobera	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Angostina	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Arluzea	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Bernedo	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Berrozi	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Ibartza	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Markinez	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Navarrete	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Okina	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Quintana	Arreta bereziko eremuak
Bernedo San Román de Campezo/Durruma Kanpezu	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Urarte	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Urturi	Arreta bereziko eremuak
Bernedo Villafría	Arreta bereziko eremuak
Campezo/Kanpezu Antoñana	Arreta bereziko eremuak
Campezo/Kanpezu Bujanda	Arreta bereziko eremuak
Campezo/Kanpezu Orbiso	Arreta bereziko eremuak
Campezo/Kanpezu Oteo	Arreta bereziko eremuak
Campezo/Kanpezu Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu	Arreta bereziko eremuak
Zigoitia Acosta/Okoizta	3
Zigoitia Apodaka	3
Zigoitia Berrikano	4
Zigoitia Buruaga	3
Zigoitia Zestafe	3
Zigoitia Etxaguen (Zigoitia)	3
Zigoitia Etxabarri Ibiña	4
Zigoitia Eribe	4
Zigoitia Gopegi	4

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Zigoitia Larrinoa	3
Zigoitia Letona	2
Zigoitia Manurga	3
Zigoitia Mendarozketa	4
Zigoitia Murua	3
Zigoitia Olano	3
Zigoitia Ondategi	4
Zigoitia Zaitegi	2
Zigoitia Disseminados de Zigoitia	3
Kripan Kripan	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Anda	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Andagoia	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Aprikano	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Artxua/Archúa	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Arriano	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Katadiano	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Etxabarri-Kuartango	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Guillarte/Gibilloarrate	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Iñurrieta	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Jokano	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Luna	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Marinda	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Santa Eulalia	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Sendadiano	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Tortura	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Uribarri Kuartango	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Urbina de Basabe	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Urbina Eza	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Villamanca	Arreta bereziko eremuak
Kuartango Zuhatsu Kuartango	Arreta bereziko eremuak
Elburgo/Burgelu Añua	3
Elburgo/Burgelu Arbulu	3
Elburgo/Burgelu Argomaniz	4
Elburgo/Burgelu Elburgo/Burgelu	3
Elburgo/Burgelu Gazeta	3
Elburgo/Burgelu Hijona/Ixona	2
Elciego Elciego	2
Elvillar/Bilar Elvillar/Bilar	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Azilu	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Alaitza	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Arrieta	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Erentxun	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Ezkerkotxa	Arreta bereziko eremuak

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Iruraiz-Gauna Gazeo	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Gauna	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Gereñu	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Jauregi	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Langarika	Arreta bereziko eremuak
Iruraiz-Gauna Trokoniz	Arreta bereziko eremuak
Labastida/Bastida Labastida/Bastida	3
Labastida/Bastida Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon	3
Lagrán Lagrán	Arreta bereziko eremuak
Lagrán Pipaon	Arreta bereziko eremuak
Lagrán Villaverde	Arreta bereziko eremuak
Laguardia Campillar (El)	2
Laguardia Laguardia	3
Laguardia Laserna	2
Laguardia Páganos	2
Lanciego/Lantziego Assa	Arreta bereziko eremuak
Lanciego/Lantziego Lanciego/Lantziego	Arreta bereziko eremuak
Lanciego/Lantziego Viñaspre/Binasperi	Arreta bereziko eremuak
Lapuebla de Labarca Lapuebla de Labarca	Arreta bereziko eremuak
Leza Leza	Arreta bereziko eremuak
Laudio/Llodio Beldui-Zumelta-Olako	3
Laudio/Llodio Dubiriz	2
Laudio/Llodio Gardea	4
Laudio/Llodio Goienuri	3
Laudio/Llodio Isusi	3
Laudio/Llodio Izardui-Altui-Odiaga	3
Laudio/Llodio Larraño Luxa	4
Laudio/Llodio Larrazabal	3
Laudio/Llodio Lusurbeilanda-Oleta	3
Laudio/Llodio Markuartu	3
Laudio/Llodio Olarte	2
Laudio/Llodio Saltarriaga-Launtxu	3
Laudio/Llodio San Bartolomé-Asudui-Larra	3
Laudio/Llodio Torrejon-Txirrieta Etxeoru	4
Arraia-Maeztu Apellániz / Apilaiz	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Atauri	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Azazeta	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Korres	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Maeztu/Maestu	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Onraitia/Erroeta	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Róitegui/Erroitegi	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Sabando	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Aletxa	Arreta bereziko eremuak

Udalerrria-entitatea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Arraia-Maeztu Arenaza/Areatza	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Cicujano/Zekuiano	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Ibisate	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Leorza/Elortza	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Musitu	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Vírgala Mayor / Birgaragoien	Arreta bereziko eremuak
Arraia-Maeztu Vírgala Menor / Birgarabarren	Arreta bereziko eremuak
Moreda de Álava/Moreda Araba Moreda de Álava/Moreda Araba	Arreta bereziko eremuak
Navaridas Navaridas	Arreta bereziko eremuak
Okondo Irabien	4
Okondo Ugalde	2
Okondo Billatxika	2
Okondo Aretxaga	2
Oyón-Oion Barriobusto/Gorrebusto	2
Oyón-Oion Labraza	2
Oyón-Oion Oyón-Oion	4
Peñacerrada-Urizaharra Baroja-Zumentu	Arreta bereziko eremuak
Peñacerrada-Urizaharra Faido/Faidu	Arreta bereziko eremuak
